

ETXEPARE ETA MOGELEN LANAK ARMENIERAZ

Vahan Sarkisian armeniar euskaltzain ohorezkoa hil berri zaigu aurtengo urtarrilaren 21an, 55 urte zituela. Inguruko auzo-hizkuntzak eta literaturak aztertzen diharduten espezialistekin konparaturik, ez dira ugariegi, tamalez, euskaraz, gure etxeko Mari Errauskinez, arduratzen diren hizkuntzalariak, eta, horrelako alerik agertzen den baterako, erakusten duen arreta eta interesa eskertu beharko genizkioke zintzoki, maiz, zoritxarrez, eta gure lotsarako, egiten ez dakigun moduan, hain zuzen. Izan ere, joan egin zaigu Sarkisian, baina halere, berak euskararen inguruan idatziriko ikerlanak eta gure hizkuntzatik armenierara egindako itzulpenak behintzat hor gelditu dira, guregana agertzen zituen interes eta begikotasunaren lekuko.

Bestetik, eta ia batera, egunotan Eusko Legebiltzarraren jauregian, Gasteizen, Bernat Etxepare eta euskal literaturaren inguruan erakusketa bat ireki da, otsailetik martxora arte iraungo duena. Erakusketari **Euskara jalgi hadi plazara** izena ezarri zaio, Nafarroa Behereko lehen euskal idazleak bere poema famatu batean egin zuen deia bereganatuz. Horixe izan zen, hain zuzen, Bernard Etxepareren nahia, euskara munduan zehar ibiltzea, euskaldunon hizkuntza lau haizeetara ezagutaraztea, jende guztiek jakin dezaten beste hizkuntzak bezala, euskara ere idazteko on eta egokia dela.

Etxepareren liburuaren 450. urteurrena ospatzeko, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera, *Linguae Vasconum Primitiae*, lehen euskal liburu inprimatuaren edizioa eman zuten argitara sei hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz. Aitortu beharra dago 1995eko argitalpen berri horrek arrakasta izan zuela, laster bi edizio agortu ziren eta.

Horrela, neurri batez, bete egiten zen Etxepareren behialako gogo zahar hura, bere liburua munduan zehar bidaiatzen ikusteko. Geroago baina, Sarkisian irakasleak muga zabalagoak jarri zizkion haren lanari eta 2001an

Erebanen, Armeniaren hiriburuan, bertako hizkuntzaz argitaratu zituen euskaldunon hizkuntzaren hasikin haiek, armenierazko bertsotan eginak. Hurrengo urtean, 2002an, *Peru Abarka*-ren armeniar itzulpena plazaratu zigun. Nekez susma zezakeen XVI. mendearen erdialdean gure Bernard zaharrak bere poemak etorkizunean noraino eta Noeren arka gelditu omen zen lekuraino, Ararat mendiraino, noizbait helduko zirenik.

Scripta manent ‘Idatzirikoak iraun dirau’, bai Etxepareren jatorrizko eskribuak eta bai haren adiskide Vahan Sarkisianen itzulpenak ere. Biek lan egin zuten euskal letren zantzoak munduan eta denboran zehar isla eta durundi zolia egin dezan. Beude goian, beraz, bake osoan, eta biraute biek gure bihotz-oroimenetan..

Xabier Kintana Urtiagak